

**MUJERES,
ARQUEOLOGÍA
Y MUSEOS:**
investigar para coeducar

**EMAKUMEAK,
ARKEOLOGIA
ETA MUSEOAK:**
ikertzea, berdintasunean
hezteko



MUSEO DE NAVARRA / NAFARROAKO MUSEOA

16 a 17 de diciembre de 2021-eko abenduaren 16tik 17ra
Pamplona - Iruña

CONCLUSIONES

La **Red Past Women** tiene como objetivo la divulgación de un corpus creciente de investigación en el estudio de la cultura material del pasado desde una perspectiva de género. Esta perspectiva actúa transversalmente contra las desigualdades que sustenta y mantiene el conocimiento sancionado sobre el Patrimonio Cultural.

La Red establece sinergias y alianzas con disciplinas anejas que faciliten la transmisión de ese conocimiento, a través de programas de educación, proyectos expositivos y de mediación en museos, incidiendo en la ilustración como elemento fundamental de comunicación de este tipo de conocimiento.

Los museos son instituciones esenciales en la producción y transmisión de estos conocimientos (Memoria colectiva, Historia, Patrimonio cultural, Ciencia). La ausencia de las mujeres como agentes en esta narración dominante es injusta y no se ajusta a la realidad de los datos recabados en la investigación científica.

Una **metodología crítica** para la incorporación de perspectivas incluyentes, entre otras la de género, se revela imprescindible y para ser efectiva debe ser sistemática y transversal. Ofrece un análisis crítico desde la categoría género, que posibilita una toma de conciencia, ofreciendo nuevos enfoques que enriquecen el concepto de Patrimonio Cultural.

Su aplicación comienza con un análisis de las estructuras que causan esa identificación de lo masculino con lo universal, que se traduce en una búsqueda de la equidad y objetividad en el relato, con la inclusión sistemática de lo femenino de una manera igualitaria y acorde con la realidad objetiva. El análisis se centra también en las estructuras que han causado la desigualdad, la misoginia y las violencias específicas sobre las mujeres.



CONCLUSIONES

La legislación en materia de igualdad es imprescindible, pero es difícil su implementación. Es un derecho de la ciudadanía y un deber de la Administración. Crea el problema de los oportunismos sin convicción, de la percepción de fiscalización, cuando existe una resistencia pasiva, pero también ofrece el marco necesario para la asimilación de los principios de equidad y justicia. Este esfuerzo legislativo precisa del apoyo de multitud de agentes que desde la sociedad contribuyan a su consolidación.

En educación y difusión, es necesario **establecer puentes de comunicación** entre la sociedad, los profesionales que transmiten patrimonio, los centros de educación primaria y secundaria, los centros de educación superior y también los museos. Para ello hay que implementar sistemas de evaluación del impacto de las acciones en esta línea en la ciudadanía, para hacer más eficientes los instrumentos facilitados a profesionales de la educación, la difusión y la comunicación.

Las universidades producen un conocimiento que debe llegar a la sociedad a través de los museos y los centros educativos, pero también deben **incluir en sus currículos la formación en estas perspectivas incluyentes**, no sólo en forma de másteres, estudios de postgrado o asignaturas optativas, sino incorporándolas a las materias obligatorias de manera transversal y sistemática en todos los ámbitos y niveles educativos. De otra forma, el profesorado formado en las mismas tendrá esta carencia que perpetúa modelos tan injustos como alejados de la realidad.

La educación desde la etapa infantil hasta el final de la secundaria o formación profesional es imprescindible para lograr una sociedad más igualitaria. Sin una enseñanza sólida en esta materia a nivel universitario no se produce de forma adecuada el retorno de ese conocimiento generado desde la investigación a la sociedad.

Entre los **instrumentos de mediación**, las imágenes son el vehículo más eficaz e inmediato de transmisión de conocimiento en cultura material. En esta línea se ha presentado el **Test de Baeza**. Se trata de una propuesta constructiva para crear y diagnosticar, desde una perspectiva inclusiva, las ilustraciones arqueológicas e históricas, como documento de buenas prácticas. Estas jornadas ofrecen la presentación de las primeras conclusiones de esta guía práctica, que puede ser objeto de nuevos aportes. Se divide en tres aspectos:

- 1) Criterios generales.
- 2) Rúbrica, similar a las que se utilizan para evaluar en los medios educativos.
- 3) Decálogo, que a través de diez sencillas preguntas, permite realizar un diagnóstico básico acerca de la equidad o desequilibrio, los presentismos, la amplitud de la mirada a toda la sociedad, etc.



CONCLUSIONES

Asimismo, se han puesto en valor temas de interés específico en estas líneas de trabajo como:

- La centralidad a la cultura de los cuidados, asociada a la actividad de las mujeres a lo largo del tiempo, como imprescindible para el mantenimiento de las sociedades humanas.
- La aportación de claves de interpretación para diversos hallazgos realizados en el registro arqueológico desde la Etnología y los estudios de Patrimonio Cultural Inmaterial.
- Las bases científicas que sustentan la Bioantropología a la luz de la perspectiva de género, que plantea nuevas preguntas y ofrece resultados que rompen con el sesgo de interpretación dominante.
- La incorporación de la perspectiva de género de manera transversal y, en general, de una metodología desde perspectivas incluyentes en la investigación arqueológica e histórica.

En 2022, la Dirección General de Cultura-Institución Príncipe de Viana **publicará el Test de Baeza**, de manera que sirva como vehículo de difusión de esta herramienta. Por su parte, el Instituto Navarro de Igualdad divulgará una serie de **microvídeos**, grabados en el transcurso de las Jornadas, que darán pautas sencillas y asequibles a las personas interesadas en mirar el Patrimonio Cultural desde la perspectiva de género.



Iraganeko kultura materiala genero-ikuspegitik aztertzen duten ikerketen corpusa gero eta handiagoa da, eta **Past Women Sarea**ren helburua da hori zabaltzea. Izan ere, kultura-ondareari buruz autoritateek onartzen duten ezagutzak hainbat desberdintasun eusten eta mantentzen ditu, eta desberdintasun horien aurka zeharka eragiten du ikuspegi horrek.

Sareak sinergiak eta aliantzak ezartzen ditu hurbileko diziplinekin, zehazki, ezagutza horren transmisioa errazten dutenekin, izan hezkuntza-programen bidez, erakusketaproiektuen bidez edo museoetako bitartekotza-proiektuen bitartez. Bereziki azpimarratzen da ilustrazioa, ezagutza mota hori komunikatzeko funtsezko elementua baita.

Museoak funtsezko erakundeak dira ezagutza horiek sortu eta transmititzeko (memoria kolektiboa, historia, kultura-ondarea, zientzia). Emakumeak ez egotea eragile gisa nagusi den narrazio horretan ez da bidezkoa, eta ez dator bat ikerketa zientifikoan bildutako datuetan ikusten den errealitatearekin.

Metodologia kritikoa ezinbestekoa da ikuspegi inklusiboak –besteak beste, generoarena– txertatzeko; eta metodologia hori eraginkorra izanen bada, sistematikoa eta zeharkakoa izan behar du. Analisi kritiko bat eskaintzen du generoaren kategoriatik, eta horrek bide ematen du kontzientzia hartzeko, kultura-ondarearen kontzeptua aberastan duten ikuspegi berriak eskainiz.

Hori aplikatzeko, lehenik eta behin, aztertu behar dira maskulinoa unibertsalarekin identifikatzea eragiten duten egiturak. Ondoren, zuzentasuna eta objektibotasuna bilatu behar dira kontakizunean, eta femeninoa sistematikoki sartu behar da, berdintasunez eta errealitate objektiboarekin bat. Desberdintasuna, misoginia eta emakumeen aurkako indarkeria espezifikoak eragin dituzten egiturak ere aztertzen dira.

Berdintasunaren arloko **legedia** ezinbestekoa da, baina zaila da inplementatzea. Herritarren eskubidea da, eta Administrazioaren betebeharra. Sortzen du konbentzimenturik gabeko oportunitasuen arazoa, fiskalizazioaren pertzepzioarena, erresistentzia pasiboa dagoenean, baina ekitate- eta justizia-printzipioak barneratzeko beharrezko esparrua ere eskaintzen du. Ahalegin legegile horrek eragile askoren laguntza behar du, gizarteak hura sendotzen lagun dezan.

Hezkuntzari eta zabalkundeari dagokienez, **komunikaziorako zubiak eraiki** behar dira honako hauen artean: gizartea, ondarea transmititzen duten profesionalak, lehen eta bigarren hezkuntzako ikastetxeak, goi-mailako hezkuntzako ikastetxeak eta museoak. Horretarako, ildo horretako ekintzek herritarrengan duten eragina ebaluatzeko sistemak ezarri behar dira, eraginkorrakoak izan daitezen hezkuntzako, hedapeneko eta komunikazioko profesionalei emandako tresnak.



Unibertsitateek ezagutza sortzen dute (eta ezagutza horrek gizartera iritsi behar du museoen eta ikastetxeen bidez), baina **beren curriculumetan ikuspegi inklusiboetarako buruzko prestakuntza ere sartu** behar dute, ez soilik masterren, graduondoko ikasketen edo aukerako irakasgaien bitartez, baita derrigorrezko ikasgaietan zeharka eta sistematikoki txertatuta ere, hezkuntza-esparru eta -maila guztietan. Bestela, horietan trebatutako irakasleek gabezia hori izanen dute, eta hala eredu bidegabeak eta errealitateetatik urruti daudenak betikotzen dira.

Hautzarotik bigarren hezkuntza edo lanbide-heziketa amaitu arte heztea ezinbestekoa da gizarte berdinzaleagoa lortzeko. Unibertsitatean gai horri buruzko irakaskuntza sendorik ez badago, ikerketatik sortutako ezagutza hori ez da behar bezala itzuliko gizartera.

Bitartekaritza-tresnen artean, irudiak dira kultura materialari buruzko ezagutza transmititzeko biderik eraginkorrena eta berehalakoena. Horretarako, **Baezako testa** aurkeztu da. Proposamen eraikitzaile bat da, ikuspegi inklusibotik sortzeko eta diagnostikatzeko ilustrazio arkeologikoak eta historikoak, jardunbide egokien dokumentu gisa. Jardunaldiok gida praktikoa horren lehen ondorioen aurkezpena eskaintzen dute, eta beste ekarpen batzuk ere egin dakizkioke. Hiru alderditan banatzen da: 1) Irizpide orokorrak, 2) Errubrika, hezkuntza-baliabideetan ebaluatzeko erabiltzen direnen antzekoa, 3) Dekalogoak, zeinak aukera ematen baitu hamar galdera errazen bidez gai hauen oinarriko diagnostikoa egiteko: ekitatea edo desoreka, presentismoa, begirada gizarte osora zabaltzea, eta abar.

Era berean, interes espezifikoak nabarmendu dira, hainbat lan-ildotakoak, hala nola:

- Zaintza kulturaren zentraltasuna, emakumeek denboran zehar egin duten jarduerari lotua, ezinbestekoa baita giza-komunitateei eusteko.
- Erregistro arkeologikoan egindako zenbait aurkikuntzen interpretaziorako gakoak ematea Etnologiaren bidez eta Kultura Ondare Immaterialen azterlanen bidez.
- Bioantropologiaren oinarri zientifikoak genero-ikuspegiaren argitan; izan ere, ikuspegi horrek galdera berriak planteatzen ditu eta nagusi den interpretazio-joera hausten duten emaitzak eskaintzen ditu.
- Genero-ikuspegia zeharka txertatzea, eta, oro har, ikerketa arkeologiko eta historikoan ikuspegi inklusiboak dituen metodologia bat txertatzea.



ONDORIOAK

2022an, Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiak **Baezako Testa argitaratuko du**, tresna hori hedatzeko. Bestalde, Nafarroako Berdintasuneko Institutuak zabalduko ditu jardunaldietan grabatutako hainbat **mikrobideo**, jarraibide errazak eta eskuragarriak emanen dizkietenak kultura-ondareari genero-ikuspegitik begiratzeko interesa dutenei.

ORGANIZA/ANTOLATZAILEA:



COLABORA /LAGUNTZAILEA:

